
ADIKZIOAK

BALIABIDEAK

GASTEIZEN

GASTEIZEN ADIKZIOAK ETA ANTZEKO
BESTE PORTAERA-NAHASMENDU
BATZUK MURRIZTEKO 2015-2019KO IV.
PLANA

UDAL GAIAK BILDUMA



Adikzioak Baliabideak Gasteizen

Gasteizen adikzioak eta antzeko beste portaera-nahasmendu
batzuk murrizteko 2015-2019ko IV. Plana

Edizioa: Vitoria-Gasteizko Udala

Argitaratzailea: Kirol eta Osasun Saila
Osasunaren Sustapenaren Atala

Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak: Erakunde komunikaziorako zerbitzua

Itzulpena: Euskara Zerbitzua

Inprimatzailea:

LG:

2021ko apirila

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	7
SARRERA.....	8
LABURPEN-TAULA: BALIABIDEAK ETA PREBENTZIO MOTA.....	10
GASTEIZKO UDALAREN BALIABIDEAK ETA PROGRAMAK.....	11
- Baratzean nire lagunekin.....	12
- Zintzo-Mintzo (alkohola).....	13
- Hordago! Drogarik gabe bizitzearen erronka.....	14
- Unplugged. Bizitzarako trebetasunak (droga-kontsumoa).....	15
- Osasunkume. Bizitzaren abentura.....	16
- Adikzioaren prebentziorako programa.....	17
- Adikzioetan arriskuak murrizteko programa.....	18
- Errealitate birtuala: Teknologiak segurtasunez erabiltzea.....	19
- Pantaila seguruak.....	20
- ALD - Drogei buruzko tokiko ekintza.....	21
BESTE BALIABIDE BATZUK.....	22
- “Kerik Gabeko Gazteak” lehiaketa.....	23
- Hiesaren aurkako Arabako Batzordea.....	25
- Ai Laket!!.....	27
- Herritarren segurtasunaren sailaren beste jarduketa batzuk.....	29
- Gao Lacho Drom ijitoen elkarte.....	31
- ASAJER (Errehabilitazioan ari diren Arabako Jokalarien elkarte).....	32
- Jeiki Fundazioa.....	34
. Hazgarri.....	35
. Aukera.....	36
. Gizakia Helburu.....	37
. UVEP.....	38
- Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte (AECC).....	39
- Osasun-zentroetako tabako-mendekotasuna gainditzeko programa.....	40
- Arabako Espetxea.....	41
- Al-Anon, alkoholikoen senideentzako taldeak.....	42
- Alkoholiko Anonimoak 24 ordu Gasteiz.....	44
- Alkoholiko Anonimoak (AA).....	45
- Adikzioekin lotutako orientazioa eta tratamendua emateko zentroa.....	47

BESTE BALIABIDE OSAGARRI BATZUK	49
- Gasteizko Udala	50
- Hiri hezitzailea: ohitura osasungarriak	50
- Gazteria zerbitzua.....	51
Asexoría.....	51
Psikoaholkularitza.....	51
Gauekoak.....	52
Xtraclub.....	52
Gazte Factory.....	52
- Kale-heziketarako programa	53
- Beste erakunde batzuk	54
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen eta horien familien elkartea (Asafes)	54
- Arabako Osasun Mentaleko Sarea (Osakidetza).....	55
- Berritzegune (Hezkuntza).....	56
- Gizarte-bazterketako egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako berariazko esku-hartzeak. (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea)....	57
- Informazio-baliabideak: Drogomedia (Eusko Jaurlaritza), Evict	58
ERANSKINA	59
- Gasteizko lehen mailako arretaren kontaktuak. Osakidetza.....	60
- Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuen Kontaktua.....	61
- Gizarte-Larrialdietarako Udal-Zerbitzua (GLUZ)	62

AURKEZPENA

Adikzioak oso errealitate konplexua dira, haien jatorrian, prozesuan eta finkatzean elkartzen diren elementuen arteko elkarrekintza dela eta.

Baliabideak egote hutsa ez da nahikoa haiek ez badituzte ezagutzen profesionalek edo adikzioak dituzten pertsonak eta haien senitartekoez edo, gizarte-egoeraren edo egoera pertsonalaren ondorioz, ahultasun-egoeran dauden kolektiboez.

Gasteizen adikzioak eta antzeko beste portaera-nahasmendu batzuk murrizteko 2015-2019ko IV. planean (zeina 2021an luzatu baita), adikzioak menpekotasuna sor dezaketen zenbait portaera gisa definitzen dira: Menpekotasun hori substantzieziko izan daiteke, edo ez. Halaber, onartzen da beste portaera-nahasmendu batzuetan pertsonak jardura jakin bat errepikatzen duela (internet erabiltzea, bideo-jokoak, erosketak, eta abar) eta horrek ekar diezazkiokeela eragin negatiboak osasunean zein ongizatean (pertsonala, emozionala edo harreman-ongizatea).

Instantzia askok dute adikzioetan esku hartzeko ardura, eta zenbaitetan zaila da informazioa eskuratzea: zer jarduketa egiten ari diren, zer ordutegi duten jendearentzako arretarako edo nola jarri harremanetan haiekin. Gida honen bidez, sistematizatu eta toki bakar batean bildu nahi dugu adikzioekin lotutako Gasteizko udalerrian dauden baliabideei (Udalarenak zein Udaletik kanpokoak) buruzko informazio guztia, eta, hala, haietara iristea errazteko eta interesa duten pertsona guztientzako orientabide izan dadin.

Baliabide-gida Gasteizko biztanle guztiei zuzenduta dago, bai eta adikzioen gaineko informazioa eta aholkularitzaren, prebentzioaren, tratamenduaren eta gizarteratzearen arloko baliabideak bear dituzten elkarte, entitate, fundazio eta arne).

iHelburu orokorra da Gasteizko biztanleei informazioa ematea adikzioen fenomenoari eta haren arrisku-faktoreei aurre egiteko hirian dauden baliabide eta programei buruz, pertsona bakoitzaren beharren arabera.

Livia Claudia López Gutiérrez
Kirol eta Osasun Saileko zinegotzia
Gasteizko Udala

SARRERA

Gida honetan, adikzioen esparruan prebentzioaren eta arretaren arloan Gasteizko udalerrian dauden baliabideak biltzen dira; horren barruan sartu dira, bai informazioa, prebentzioa eta tratamendua eskaintzen dutenak, bai oro har osasuna hobetzea eta gizaratzea/gizarte-inklusioa sustatzean eragina duten beste batzuk.

Baliabideak sailkatuta daude, eskaintzen dituzten prebentzio eta tratamendu motaren arabera.

Prebentzioa esaten zaio gizakiaren bizimodu osasungarria arriskuan jartzen duten gizarte-jarduera jakin batzuk edo substantzien gehiegizko kontsumoa saihesteko edo murrizteko helburua duten jardueren multzoari; horretarako, jarduerak arrisku-faktoreak (adikzioa agertzeko probabilitatea handitzen dutenak) kendu edo murrizten dituzte, eta babes-faktoreak (adikzioaren agerpenetik babesten duten eta hura gertatzea saihesten dutenak) handitu eta sendotzen dituzte.

Hiru prebentzio-maila bereizten dira, haren hartzaileen ezaugarrien arabera:

- Prebentzio unibertsala: biztanleei oro har zuzentzen zaie, hautaketa-irizpiderik gabe, estrategia eta jarduera orokorren bitartez.
- Prebentzio selektiboa: zenbait faktore tarteko (testuingurukoak, familiakoak...) arrisku-jokabideetara (kontsumora) jotzeko aukera handien dituztenei zuzentzen zaie.
- Prebentzio egokitua: arrisku-jokabideetara jotzeko lehen zantzuak erakutsi dituzten subjektuei zuzentzen zaie.

Tratamendua esaten zaie, aldiz, helburu hauetakoren batekin mendekotasuna lantzen duten prozesu soziosanitario eta psikoterapeutikoei: abstinentsia lortzea, kontsumoa murriztea edo kontsumoaren edo adikzioaren ondoriozko kalteak murriztea.

Gida honen azken atalak beste baliabide batzuei buruzkoa da; haien esku-hartzeek zeharka heltzen diote adikzioen gaiari, hura agertzean eragina izan dezaketen edo haren ondorioa izan daitezkeen faktoreak lantzen baitituzte.

Baliabide bakoitzari buruzko fitxan honako datu hauek daude: deskribapena, esku-hartze mota (unibertsala, selektiboa, egokitu-tua), helburuak, hartzaileak, tokia, iraupena, izen-ematea, diruz lagunduta dauden eta, azkenik, harremanetarako datuak.

Entitateek egiten dituzten programa garrantzitsuenak jasotzen ditu, baina asmoa ez da zehaztasun osoz zehaztea adikzioekin zeharkako lotura duten esku-hartze guztiak. Gida eskuragarri dago paperean zein euskarri digitalean.

Halaber, behar edo nahi duten pertsona, entitate edo organismo guztien esku dago gida.

Espero dugu denontzat tresna baliagarria izatea.

Osasun Publikoaren Zerbitzua

Kirol eta Osasun Saila

LABURPEN-TAULA: BALIABIDEAK ETA PREBENTZIO MOTA

BALIABIDEA	Prebentzio unibertsala	Prebentzio selektiboa	Prebentzio egokitua	Tratamendua
Baratzean nire lagunekin	X			
ZINTZO-MINTZO (alkohola)"	X			
Hordago! Drogarik gabe bizitzaren erronka	X			
Unplugged. Bizitzarako trebetasunak (droga-kontsumoa)	X			
Osasunkume, bizitzaren abentura	X			
Tabakoarekiko mendekotasuna prebenitzea	X			
Alkoholarekiko mendekotasuna prebenitzea	X			
Kalamuarekiko mendekotasuna prebenitzea	X			
Mendekotasunen prebentzioa: legez kanpoko drogak eta ausazko jokoak	X			
Alkoholaren kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa		X		
Kalamuaren kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa		X		
Legez kanpoko drogen kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa		X		
Ausazko jokoen eta kirol-apustuen kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa		X		
Errealitate birtuala: Teknologiak segurtasunez erabiltzea	X			
Pantaila seguruak: internet eta sareak	X			
ALD - Drogei buruzko tokiko ekintza	X	X	X	
Kerik gabeko gazteak (Eusko Jaurlaritzaz)	X			
Hiesaren Kontrako Batzordea (Sidálava)	X	X	X	
Ai Laket!!	X	X	X	
Herritarren segurtasunaren sailaren beste jarduketa batzuk			X	
Gao Lacho Drom		X	X	
ASAJER	X	X	X	X
Jeiki fundazioa	X	X	X	X
AECC	X			X
Tabako-mendekotasuna gainditzea. Osasun-zentroak	X			X
Arabako Espetxea				X
AI-Anon				X
Alkoholiko Anonimoak 24h				X
MOTZ				X

GASTEIZKO UDALAREN BALIABIDEAK ETA PROGRAMAK

BARATZEAN NIRE LAGUNEKIN

ZINTZO-MINTZO (ALKOHOLA)

HORDAGO! DROGARIK GABE BIZITZEAREN ERRONKA

UNPLUGGED. BIZITZARAKO TREBETASUNAK (DROGA-KONTSUMOA)

OSASUNKUME. BIZITZAREN ABENTURA

ADIKZIOAREN PREBENTZIORAKO PROGRAMA

ADIKZIOETAN ARRISKUAK MURRIZTEKO PROGRAMA

ERREALITATE BIRTUALA: TEKNOLOGIAK SEGURTASUNEZ ERABILTZEA

PANTAILA SEGURUAK

ALD - DROGEI BURUZKO TOKIKO EKINTZA



BARATZEAN NIRE LAGUNEKIN

DESKRIBAPENA

Programa honetan aztertzen dira hurrek izaten dituzten eta beren jokabideetan eragina izan dezaketen ohiko sentimenduak; hori du alderik garrantzitsuena.

Programa osoak irakaslearen bitartekotza du ardatz, eta horretarako honako material hau dauka: hezitzaileentzako gida, gurasoentzako gida, ipuinen liburua eta irudiak dituzten lamina-jokoa.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- Heldutasun psikoafektiboa lortzea.
- Osasun-ohiturak hartzea.
- Gehiegizko droga-kontsumoari buruzko prebentzio-lana hastea.

HARTZAILEAK

Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza.

12

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Zenbait saio teoriko eta praktiko, ordubete inguruak. Ematen duen irakaslearen irizpidearen arabera.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

ZINTZO-MINTZO (ALKOHOLA)

DESKRIBAPENA

Gaitasun sozialak garatzeko zenbait gaiari heltzen zaio, bi osagaiz osatutako hezkuntza-tresna baten bidez:

Hiru minutuko iraupeneko hamar istorio animatu; haietan gaitasun sozialak garatzea sustatzen duten zenbait bizipen ageri dira.

Bizitarako trebetasunak garatzeko programa dinamizatzearen arduradunentzako gida bat.

Materialak: Irakasleen gida, ikasleen koaderno eta 10 istorio animatu.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- Afektibo-sexuala: gure mundu afektiboari buruz hitz egitea.
- Mendekotasunak: bizitzaz gozatzea, kontrola mantenduta.
- Alkohola: **Alkohol gehiegi kontsumitzera bultzatzen duten** gizarte ohiturak kritikoki zalantzan jartzea.
- Bizikidetzeta: Pertsonok askotarikoak izateko dugun eskubidea sustatu nahi du.

13

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

20 lan-saio. Guztiak egin daitezke, edo unean uneko garrantzitsuenak aukeratu.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

HORDAGO! DROGARIK GABE BIZITZEAREN ERRONKA

DESKRIBAPENA

Ikasle nerabeekin drogamenpekotasunen prebentzioa lantzeko baliabide didaktikoa da. Honako gai hauek jorratzen dira: sinesmenak, jarrerak, eraginak, erabakiak hartzea, auto-estimua, taldeari aurre egitea eta aisialdiaren erabilera.

Ikasturte bakoitzeko zortzi saio egitea proposatzen da; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen denerako guztira 32 saio izango dira.

Materialak: Irakasleentzako 4 eskuliburu, eta ikasleentzako koadernoak.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

. Ikasleei behar diren informazioa, jarrerak, balioak eta trebetasunak ematea, droga-eskaintzaren aurrean gogoeta eginda eta beren kabuz erabakiak har ditzaten.

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta irakasleak.

14

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Ematen duen irakasleak zehaztuko du.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

UNPLUGGED. BIZITZARAKO TREBETASUNAK (DROGA-KONTSUMOA)

DESKRIBAPENA

Bizitzarako trebetasunak jorratzen dituen hezkuntza-eredua du oinarri, droga-kontsumora bultzatzen duten talde- eta gizarte-eraginak konpentsatzeko estrategia gisa.

Metodologia interaktiboak dituzten ordubeteko 12 jarduerak osatzen dute.

Materiala: Irakaslearen eskuliburua, ikasleen koaderno eta drogei buruzko informazio-fitxen jokoa.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

. Honako hauek indartzea edo/eta hobetzea: enpatia, asertibitatea, gizarte-harremanak, talde-dinamikak, zailtasunak gainditzea, arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea.

. Drogei, alkoholari eta tabakoari buruz informatzea.

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta irakasleak.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Ematen duen irakasleak zehaztuko du.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

OSASUNKUME. BIZITZAREN ABENTURA

DESKRIBAPENA

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitariorako programa da, eta osasunerako hezkuntza hartzen du ardatz, lan egiteko estrategia egokiena delakoan.

Lau ardatzetan proposatzen da esku-hartzea: auto-estimua, bizitzarako trebetasunak, drogak eta ohitura osasungarriak. Aldi berean lau ardatz horiek hamabitan banatuak dira eta horiek gurutzatu egiten dira haurrak gizarteratzeko funtsezko hiru esparruetan.

Ikasle bakoitzak bere materiala jasoko du (albuma), eta bertan hogeita hamasei kromo itsatsi beharko ditu. Beste istorio labur batzuetan, haur talde baten eguneroko bizimodua ageri da, beren maskota OSASUNKUME atsegina beti ondoan dutela. Adiskide-taldea hiru esparrutan ikusiko ditugu: familian, ikastetxean eta auzoan.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- . Droga-kontsumoa prebenitzea.
- . Ohitura osasungarriak hartzea.
- . Bizitzarako gaitasunak garatzea.
- Autoestimua indartzea.

16

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Lehen Hezkuntza, gurasoak, irakasleak eta beste kolektibo batzuk (bitartekariak).

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Ematen duen irakasleak zehaztuko du.

HIZKUNTZAK

Euskarazko materiala (kromoak izan ezik) sare honetan dago da: Kutxaeskola.eus
Gure zerbitzuak emango ditu euskarazko kromoak eta gaztelaniazko materiala, behar izanez gero.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

ADIKZIOA PREBENITZEKO PROGRAMA

DESKRIBAPENA

Jarduera sentsibilizazio-lantegi bat da, eta xede du adikzioen ondorioei buruzko ezagutzak eskaintzea eta ikasleen artean gaitasunak garatzea, haren kontsumoa saihestu edo murrizteko.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- . Autonomia pertsonalaren (autoezagutza, asertibitatea, erabakiak hartzea, autoestimua eta erresilientzia) eta osasunerako hezkuntzaren gaitasunak garatzea, eta bizimodu osasungarriarekin lotutako jarrerak eta balioak sustatzea.
- . Ezagutzak ematea adikzioa sortzen sustantziei eta haien kontsumitzearen ondorioei buruz.
- . Ikastetxeko familiak sentsibilizatzea, seme-alaben adikzioa prebenitzeko.

PROGRAMAK ETA HARTZAILEAK

Tabakoarekiko mendekotasuna prebenitzea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Alkoholarekiko mendekotasuna prebenitzea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Kalamuarekiko mendekotasuna prebenitzea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Legez kanpoko drogekiko eta ausazko jokoekiko mendekotasuna prebenitzea: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Bost saio: hiru saio ikasleekin eta beste bi irakasleekin (bat hiru horien aurretik eta bestea haien ondoren).

50-60 minutuko saioak.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

ADIKZIOETAN ARRISKUAK MURRIZTEKO PROGRAMAK

DESKRIBAPENA

Kontsumo-arriskuak antzematen hasi diren ikasgeletan egitekoa da jarduera. Prestakuntzako hiru ordu iraungo du, parte hartzeko bizpahiru saiotan banatuta. Zenbait dinamika egingo dira ikasgelan, substantziari eta haren ondorioei buruz ikasteko; halaber, haren inguruko mitoak eta ideia okerrak eta autozainketa-neurri batzuk landuko dira.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio selektiboa.

HELBURUAK

- . Substantziak kontsumitzearekin lotutako arriskuez kontziente izatea.
- . Informazioa izatea kontsumo horrek zer kalte eta arrisku ekar ditzakeen.
- . Erabakiak jakinaren gainean hartzea sustatzea.
- . Autozainketa-jokabideak indartzea, kontsumitzea erabakitzen badute.

PROGRAMAK ETA HARTZAILEAK

- . Alkoholaren kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Heziketa Zikloak.
- . Kalamuaren kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Heziketa Zikloak.
- . Legez kanpoko drogen kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa: Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Heziketa Zikloak.
- . Ausazko jokoen eta kirol-apustuen kontsumoa: Ondorioak, arriskuak eta autozainketa: Lanbide Heziketa eta Heziketa Zikloak.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

60 minutuko hiru saio. gehienez. Ikastetxearen eta jarduera ematen duen enpresaren artean adostuko da saioen kopurua.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

ERREALITATE BIRTUALA: TEKNOLOGIAK SEGURTASUNEZ ERABILTzea

DESKRIBAPENA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (telebista, telefono mugikorra, bideo-jokoak, Internet, online jokoak eta abar) erabiltzearen ondoriozko arazoak landuko dira, edukien aldetiko zein erabilera okerraren aldetiko arriskuak prebenitzeko.

Jardueraren aurretik, galdetegiaren bidez baloratu eta diagnostikatuko dira irakasleek esku-hartzea jasoko duten ikasleengan antzeman dituzten beharrak.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

Ezagutzaren bidez prebenitzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzearen ondoriozko arriskuak;

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (ordenagailuak, smartphoneak, kontsolak...), sare sozialak eta zenbait aplikazio arduraz erabiltzen prestakuntza ematea eskola-ikasleei.

Zenbait balio lantzea eskola-ikasleekin: errespetua, ardura...

Pribatutasunari (zer den) balioa ematea, sarean konektatzerakoan funtsezko elementua baita.

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Ordubeteko bi saio (bi orduko saio bakarrean egitea ere balora liteke).

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Osasun Publikoaren telefonoa: 945 16 15 02

Helbide elektronikoa: saludpublica@vitoria-gasteiz.org

PANTAILA SEGURUAK: INTERNET ETA SAREAK

DESKRIBAPENA

Internet eta sare sozialak erabiltzen dituzten adingabeko ikasleei zuzenduriko hitzaldia. Sare sozialak oso tresna lagungarriak dira, baina arriskuak ere badituzte: esaterako, mehatxu pertsonalak, intimitatearen aurkako delituak, iruzurra, eduki desegokiak eskura izatea etab.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- . Ikasleen artean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak era seguruan erabiltzearen garrantzia sustatzea, bai eta praktikatzea ere.
- . Interneten praktika seguru, errespetuzko eta osasuntsuak sustatzea.
- . Sarea erabiltzean arrisku nabarmenenei aurre egiteko estrategiak ikastea.

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

20

TOKIA

Ikastetxea.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Udalaren webgunea: Udalaren Hezkuntza Jarduerak – Osasunerako hezkuntza

DIRULAGUNTZAK

Gasteizko Udala.

HARREMANETARAKO DATUAK

Herritarren Segurtasuneko telefonoa: 945 161451

Helbide elektronikoa: educacionvial@vitoria-gasteiz.org

ALD - Drogei buruzko tokiko ekintza

DESKRIPZIO LABURRA

Adingabeekiko esku-hartzea norberaren hausnarketan eta gai hauei buruzko pentsamendu kritikoa garatzean oinarritzen da: legezko zein legez kanpoko substantziak, haien kontsumoa eta ondorioak. Kontsumoak dituen arriskuak eta izan ditzakeen ondorioak eza-gutzeari bideratuta dago esku-hartzea, ezarritako zehapenaren erantzukizuna hartzearen bidez. Familiako esku-hartzea da, egoera bakoitza bere testuinguruan jarrita.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala, selektiboa eta egokitua.

HELBURUA

. Substantziak kontsumitzeagatik edo edukitzeagatik ezarritako zehapen ekonomikoaren ordezkotzat neurri bat eskaintzea, eta kontsumoarekiko tolerantzia eta permisibitatea murriztea.

HARTZAILEAK

Legezko zein legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten adingabeak.

ESKU-HARTZE ETA PROGRAMAK

Leku publikoetan drogak edukitzeagatik eta kontsumitzeagatik 4/2015 Legea hausten duten adingabeei zuzendutako esku-hartze sozioedukatiboa.

HARREMANETARAKO DATUAK

Substantziak eduki edo kontsumitzeagatik arau-haustea:

Aurrez aurre: Agirrelanda kalea 8; 01013, Gasteiz, Araba.

Telefonoz: 945161421 / 945161616, luzapena: 3232

BESTE BALIABIDE BATZUK

“KERIK GABEKO GAZTEAK” LEHIAKETA

HIESAREN AURKAKO BATZORDEA (SIDALAVA)

AI LAKET!!

GAO LACHO DROM (ARABAKO IJITOEEN ELKARTEA)

ASAJER (ERREHABILITAZIOAN ARI DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA)

JEIKI FUNDAZIOA (HAZGARRI, AUKERA, GIZAKIA HELBURU eta UVEP)

MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO ELKARTEA (AECC)

OSASUN-ZENTROETAN TABAKO-MENDEKOTASUNA GAINDITZEKO PROGRAMA

ARABAKO ESPETXEA

AL-ANON (ALKOHOLIKOEN SENIDEENTZAKO TALDEA)

ALKOHOLIKO ANONIMOAK 24 ORDU GASTEIZ

ALKOHOLIKO ANONIMOAK (AA)

MENDEKOTASUNEN ORIENTAZIO ETA TRATAMENDU ZENTROA (MOTZ)



“KERIK GABEKO GAZTEAK” LEHIAKETA

DESKRIBAPENA

“Kerik Gabeko Gazteak” Eusko Jaurlaritzaren “Tabako-kerik Gabeko Euskadi” programako ekimenetako bat da, zeina tabakoa kontsumitzearen ondoriozko osasun-arriskuen gainean biztanleria-taldeak informatzeko eta sentsibilizatzeko proposatutako esku-hartzeen barruan baitago. Irakasleen laguntzarekin ikasgeletan egitekoa den programa gisa planteatzena da.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala.

HELBURUAK

- . Kerik gabeko eskola-ingurunea bermatzea, eta tabakorik gabeko bizitzari buruzko sormen-jarduerak sustatzea.
- . Nerabeen artean jokabide osasungarriak sortzea.
- . Irakasleei materialak eskaintzea beren irakaskuntza-jardueran tabakismoaren prebentzioa landu dezaten.
- . Hezkuntza-komunitateari erraztea Osakidetzak eskainitako tabakismoa tratatzeko zerbitzuetara iristea.
- . Gasteizko ikasleak tabakoa kontsumitzen ez hastea edo hori gertatzen den adina atzeratzea.

HARTZAILEAK

Derrigorrezko Lehen Hezkuntza, DBH.

TOKIA

Ikastetxea.

IRAUPENA

Esku hartzeko proposatzen da ikasgelako bi saio egitea. Dena den, ikastetxeek autonomia dute gomendio horiei buru erabakitzeko edo bestela lantzeko.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

IZEN-EMATEA

Eusko Jaurlaritzare webgunea — Osasun Saila: Adikzioak (esteka: <https://www.euskadi.eus/informacion/kerik-gabeko-gazteak/web01-a3tabaco/eu/>)

LANKIDETZA

Udalaren Kirol eta Osasun Saila.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Osakidetza.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Adikzioen Arloak hainbat ekintza egiten ditu gai honen inguruan, bai herritarrei zuzenduak, bai osasun-sustapenean, adikzioen prebentzioan, arretan eta gizarteratzean lan egiten dutenentzat. Adikzioen behatoki bat dute (GABIA), eta hainbat substantziari eta indarreko araudiei buruzko informazio baliagarria duten beste zenbait gune ere bai (Drogomedia, besteak beste). Horretaz gain, biztanleria orokorrari zein eskola-eremuari zuzendutako prebentziorako programak eta planak ere egiten ditu. Halaber, gai honetan esku-hartzeak egiten dituzten hirugarren sektoreko erakundeen zerrenda eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko baliabideak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Adikzioen Arloaren webgunea kontsultatu.

Esteka: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/mendekotasunak/hasiera/>

HIESAREN AURKAKO BATZORDEA (SIDALAVA)

DESKRIPZIO LABURRA

Gizarte-ekintzako irabazi-asmorik gabeko erakundea; HELBURUA du GIBak (giza immu-noeskasiaren birusa) kutsatzearen eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuen problematikaz informatzea eta kontzientziatzea (haiek zenbaitetan drogak kontsumitzearen ondorioz gertatzen dira). Horretaz gain, elkartasun-sena sustatzen dute, hartara ukitutako pertsonen kontrako bazterkeria eta errefusa saihesteko.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala, selektiboa eta egokitua.

HELBURUAK

Substantzia-kontsumoan arriskuak eta kalteak eta horren ondoriozko arrisku-jokabideak murriztea.

HARTZAILEAK

Biztanleria zaurgarria (LGTBI+, sexu-langileak, pertsona seropositiboak eta abar).

ESKU-HARTZE ETA PROGRAMAK

- . Xiringak aldatzeko programa.
- . Osasuna sustatzeari eta kontsumo arduratsuari buruzko aholku bila joaten diren pertso- nei lagun egitea.
- . Arriskuak gutxitzeko eta osasuna sustatzeko kanpainak, biztanleria osoarentzat.
- . Arriskuak gutxitzeko edo osasuna sustatzeko kanpainak, biztanleria zaurgarriarentzat.
- . Esku-hartzeak Arabako Espetxean.
- . Sexu-praktiken arloko arrisku-prebentzioko programak.
- . GIBaren eta sifiliaren test azkarrak.
- . Doako haurduntza-testak.

FINANTZAKETA

Diruz lagundutako baliabidea.

Aukerako bazkide-kuota.

BERTARATZEKO/HARREMANETARAKO BIDEAK

Aurrez aurre: Kanpokale Berria 15, behea; 01001 Gasteiz, Araba (astelehenetik ostiralera, 10:00-15:00 eta 17:00-20:00).

Telefonoz: 945257766

Sare sozialak: asociación.sidalava

Webgunea: <http://sidalava.org>

AI LAKET!!

DESKRIPZIO LABURRA

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da; drogak erabiltzen dituzten edo erabiltzaile izan diren zenbait pertsonak osatzen dute; gizarte-desabantailako egoerak gutxitzeko prebentziozko ekintzak egiten dituzte, informazioa transmitituz eta drogak erabiltzearen ondoriozko arriskuak gutxitzeko eta kontsumo arduratsurako jarraibideen bidez. Zerbitzu guztiak anonimo, doako eta konfidentzialak dira.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertsala, selektiboa eta egokitua.

HELBURUAK

Arriskuak gutxitzea substantziak kontsumitzean.

Prebentzioa, informazioaren eta substantziak analizatzearen bidez.

Drogak arduraz kontsumitzeko ereduak ezartzea.

HARTZAILEAK

Kontsumitzaileak.

Herritarrak, oro har.

ESKU-HARTZE ETA PROGRAMAK

Testing: Aisialdirekin loturiko eremuetan prebentziozko esku-hartze ibiltariak (hiriz hiri eta herriz herri); haietan, zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: drogei buruzko informazioa, droga-kontsumoan arriskuak gutxitzeko materialak eta drogak analizatzeko aukera. Horretaz gain, ikuspegi intersektionalarekin egiten du lan, eta, horregatik, "outreach" delakoa egiten du, hau da, baliabidera hurbiltzeko zailtasun handienak dituzten giza talde zaugarrietara hurbiltzen da.

Gune finkoa: Gasteizen erreferentziazko gune iraunkorra dute; horretan, zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: drogei buruzko informazioa, arriskuak gutxitzeko materialak eta legez kanpoko substantziak analizatzeko aukera. Horretaz gain, liburutegia ere badauka, eta horretan, drogetan espezializatutako dokumentu-funts handia.

Informazio-gunea: Zerbitzu ibiltaria da; horretan, drogei buruzko informazioa eta droga-kontsumoaren ondoriozko arriskuak gutxitzeko materialak.

Laket!! Ionja: Gazteak egoten diren lonjetara gerturatzeko proiektua; haietan, esku-hartzeak egiten dituzte, kontsumoarekin loturiko gaiak lantzeko (kontsumo arduratsua, talde-presioa, araudia eta abar) baita gertuko beste gai batzuk ere (generoa, sexualitatea eta abar).

Botiltzar: Alkohol-kontsumoko gune estrategikoetara hurbiltzen den proiektu ibiltaria; he-
lburu du alkohol-kontsumoari buruz kontzientziatzea eta kontsumo arduratsua sustatzea.

Prestakuntza-lantegiak: Haiei eskatuta ematen dituzte, bai hezkuntza formalean, bai gaz-
tetxe, gazteleku, astialdiko talde eta abarretan.

Boluntarioak: Mota guztietako esku-hartzeak egiten dituzte boluntarioki. Boluntarioek
adikzioei buruzko prestakuntza sakon eta espezifikoa jasotzen dute elkartean bertan.

FINANTZAKETA

Diruz lagundutako baliabidea.

Autofinantzaketa (bazkide-kuotak eta borondatezko ekarpenak).

BERTARATZEKO/HARREMANETARAKO BIDEAK

Aurrez aurre: Informazio-gunean edo gune finkoan.

Telefonoz: 945 23 15 60

Helbide elektronikoa: ailaket@ailaket.com

Sare sozialak: @ailaket.euskadi

HELBIDEAK ETA ORDUTEGIAK

Informazio-gunea:

Kalea: Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea 40; 01001, Gasteiz, Araba

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00.

Gune finkoa:

Kalea: Errementari kalea 43; 01001, Gasteiz, Araba

Ordutegia: Urteko ostiral guztietan, 19:00-22:00.

HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILAREN BESTE JARDUKETA BATZUK

1. Drogei buruzko eta ordezeko neurriei buruzko informazio puntuala.
2. Eduki edo kontsumitzeagatiko dosierretatik datozen substantziak garraiatzea udal-laborategian abusu-drogen analitika egiteko.

HELBURUA

Legezko zein legez kanpoko drogen eskuragarritasuna murriztea eta haiek eskuratzeko adina atzeratzea.

HARTZAILEAK

Herritarrak, oro har

ESKU-HARTZEEN DESKRIBAPEN LABURRA

Substantzia estupefazianteak eduki edota kontsumitzeagatiko esku-hartzeak, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 4/2015 Legea aplikatuz.

Alkoholemiaren eta substantzia toxikoen kontrol prebentiboak Bide Segurtasunean.

BERTARATZEKO/HARREMANETARAKO BIDEAK

- . Substantziak eduki edo kontsumitzeagatiko arau-haustea.
- . Arau-hausterik gabe:
 - Aurrez aurre: Agirrelanda kalea 8; 01013, Gasteiz, Araba.
 - Telefonoz: 945161421 / 945161616, luzapena: 3232
- . Adingabeen Talde (Udaltzaingoa)

ESKU-HARTZEEN DESKRIBAPEN LABURRA

- . Eskolen inguruko esku-hartzea: Taldearen zeregin nagusia da gure hirian arriskuan dauden adingabeak babestea eskolen inguruko ingurunean, eta eskolen inguruko esparruetako droga-kontsumoari aurre egitea, familiekin eta hezkuntza- eta komunitate-eragile hurbilekin koordinatuta, gure hirian drogarik gabeko esparru egoki eta seguruak eskaintzeko.
- . Alkohola eta tabakoa adingabeek kontsumitzearen eta haiei saltzea kontrolatzea, bai eta adingabeek diruzko eta ausazko jokoetara eta apustueta duten sarbidea kontrolatzea.
- . Ikastetxeetan eskaripeko hitzaldiak ematea, bertan gertatzen ari den problematikarekin lotuak (lapurretak, borrokak...), legearen eta poliziaren ikuspegitik.

HELBURUA

- . Problematika berehala antzematea, hartara berariazko baliabide batera bideratu ahal izateko.

BERTARATZEKO/HARREMANETARAKO BIDEAK

- . Aurrez aurre: Agirrelanda kalea 8; 01013, Gasteiz, Araba.
- . Telefonoz: 945161616, luzapena: 4895

GAO LACHO DROM (ARABAKO IJITOEK ELKARTEA)

DESKRIPZIO LABURRA

Elkartearen lan-filosofia ijito-kulturan oinarrituta dago, eta garrantzirik handiena ematen die familiari eta komunitateari.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio selektiboa eta egokitua.

HELBURUAK

Komunitatea garatzea, normalizatzea eta gizarteratzea, familia- zein gizarte-eremuan.

Derrigorreko eskolatzeko adinean dauden Arabako Lurralde Historikoko ijito-komunitateko haurren egoera akademikoa hobetzea, indartzea eta horretan laguntza ematea.

Eremu pertsonalean eta sozialean emakumeekin lan egitea, hezkuntza- eta lan-baldintzen berdintasuna eta maila guztietako autogarapena lortzeko.

Gazteekin lan egitea, informazioa eta tresnak emanaz, gero eta lehiakorragoa den mundu batean moldatzeko behar dituzten trebetasunak eta gaitasunak eskura ditzaten.

HARTZAILEAK

Ijito-komunitatea eta harekin lotura duten pertsonak.

31

ESKU-HARTZE ETA PROGRAMAK

Prebentzio unibertsala (taldeko ikuspegiarekin helduta: gazteak, emakumeak...).

Prebentzio egokitua (banakako, familiako eta komunitateko ikuspegiarekin helduta):

- Kontsumitzaileei eta kontsumitzaile ohiei zuzendua.
- Adikzio-arazoak dituzten presoei.

FINANTZAKETA

Diruz lagundutako baliabidea.

BERTARATZEKO/HARREMANETARAKO BIDEAK

Aurrez aurre: Paula Montal kalea 26, behea; 01010, Gasteiz, Araba (astelehenetik ostirale-ra, 09:00-14:00 eta 16:00-19:00).

Telefonoz: 945 22 50 39

Helbide elektronikoa: gao@gaolacho.com

Webgunea: <http://www.gaolacho.com/index.html>

ASAJER (ERREHABILITAZIOAN ARI DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA)

DESKRIPZIO LABURRA

Irabazi asmorik gabeko elkarte; zenbait jokabideren aurrean (ausazko jokoak eta apustuak, erosketak, zenbait teknologia —mugikorra, bideo-jokoak...—) kontrolik ez edukitzeagatik laguntza eske joaten diren pertsonak laguntzen die eta haiekin lan egiten du.

Zenbait jokabideen erabilera desegokiarekin edo gehiegizkoarekin lotutako zenbait proiektu abiarazten jarduten du. Horretaz gain, pertsonak gizarteratzen eta birgizarteratzen jarduten du.

ESKU-HARTZE MOTA

Prebentzio unibertuala, selektiboa eta egokitua. Tratamendua.

HELBURUAK

- . Prebenitzea ausazko jokoekiko eta apustuekiko adikzioa, beste jokabide-adikzio batzuk eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera desegokia; herritar guztiengana iritsi nahi du, bai eta arrisku-taldeetara ere (emakumeak, adingabeak...).
- . Laguntza-jarduketak egitea ausazko jokoen eta apustuen, beste jokabide-adikzioen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak desegokiro erabiltzearen arloan, handik etor daitezkeen ondorio guztiak kontuan hartuta (psikologikoak, sozialak...), hainbat mailatan: norbanakoaren mailan, familiakoan, eskolakoan, sozialean...
- . Azterketa eta ikerketak egitea ausazko jokoen eta apustuen, beste jokabide batzuen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari buruz, al bait daturik eguneratuenak edukitze aldera.

HARTZAILEAK

Herritarrak, oro har.

Biztanleriaren sektore zaurgarrienak: emakumeak, nerabeak eta gazteak, etorkinak...

Zenbait jokabideren (ausazko jokoak eta apustuak, erosketak, zenbait teknologia —mugikorra, bideo-jokoak...—) gehiegizko erabilerak eta haren ondorioek ukitutako pertsonak.

ESKU-HARTZE ETA PROGRAMAK

- . Arreta: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta onlinekoa: Orientabidea eta informazioa.
- . Prebentzio-, informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak, biztanleria orokorarentzat eta eskatzen duten kolektiboentzat.
- . Biztanleriaren sektore zaugarrienei zuzendutako prebentzio-kanpainak: emakumeak, nerabeak eta gazteak, etorkinak...
- . Ausazko jokoen eta apustuen eta beste jokabide-adikzio batzuen adikzioak ukitutakoentzako laguntza-taldeak.
- . Senitartekoentzako laguntza-taldea.
